



**PINK
TONGUE**

FUNTSEZKO ELKARTEAK

ZEIN DIRA BEHAR DITUZUEN BAZKIDE ETA HORNITZAILE NAGUSIAK ZUEN PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?

Gure proiektuan behar ditugun bazkideak eta hornitzaile nagusiak, gure materiak lortuko dituzten pertsonak izango dira. Hau da, sizilioz egindako olatak, irrati-maiztasuneko transzeptorea, oinarrizko banda-maila eta protokolo-pila eskuratuko digun pertsona edo enpresa.

Proiektua ikerketa teknologikoko zentro bati aurkeztuko diogu, zehazki, Mondragonen unibertsitateari (mmateos@mondragon.edu). Txipa egiteko eta saltzeko bide zabala irekiko digu. Gure proiektuak arrakasta izan dezan, gure produktua proiektua bermatzen diguten enpresa txikietan ekoizten hasiko gara, hau da, oso ezagunak ez diren enpresetan. Gure produktua ezagunagoa egiten denean (enpresa txiki horren eta gure iragarkien bidez), mugak irekiko ditugu eta produktua enpresa ezagunagoei salduko diegu. Bestalde, Patxi izeneko teknologian lizentziadun batekin ere harremanetan jarri gara. Patxik denda bat dauka Azpeitin eta oniritzia eman zigun gure ideia aurkeztu genionean. Beste zalantzaren bat izanez gero, beldurrik gabe idatzi geniokela adierazi zigun.

ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK GURETZAKO?

Gure proiekturako ezinbestekoak izango dira beraien laguntza eta aportazioak, beraiek gabe, gure proiektuak ezin izango duelako aurrera egin. Beraiek, gure egunerokoan ditugun jarduerarako beharrak asetzen lagunduko digute, enpresa gehiagotara iritsi ahal izateko eta proiektua gauzatu ahal izateko, hau da, guk ez dugu behar adina baliabiderik proiektua aurrera atera ahal izateko, dela ezagutzagatik, dela materialengatik. Horregitik behar dugu teknologian lizenziatu baten eta teknologia espezialista baten laguntza.